

**URTEAN ZEHARREKO XXX. DOMEKEA (A)**  
**DOMUND 2011**  
**“HONAN BIALTZEN ZAITUET”**

**SARRERAKO OHARRA**

Jaun berbiztuaren mahaiaren inguruan batu gara. Bere ondoan batzen gaitu anai-arreba lez, batez be pobreei, apalei eta nahigabetuei begiratzen deutselarik.

“Liturgia beti da «mundutik» egiten jakun deia eta bialketa barria «mundura», bizi izandakoaren barri emoteko: Jaungoikoaren Berbearen eta Kristoren Pazko Misterioaren salbamenezko indarra”, dino Aita Santuak Misinoen Munduko Jardunaldirako, hau da, gaur ospatzen dogun Domund egunerako aurkeztu dauan *idazkian*. Kristinau alkarte lez Jaungoikoaren Berbea entzuteko eta Eukaristia ospatzeko batuta gagozala, kontuan izan behar dogu Kristo gure artean egotea eta bere jarduera salbatzailea guretzat eta anai-arreba guztientzat jasoten dogun altxorra dala eta presentzia eta jarduera horrek misinoak ardurakide egiten gaituala.

Eliza osoari jagokon misinoagazko eta misiolariakazko konpromisoa urtero barritzea da Domund eguneko helburua. Mundu guztian zehar dagozan misiolariekin bat egin gura dogu, gure otoitz eta laguntzagaz euren misiolari jardurea aurrera eroan daien eta Jesusen arpegia bihotzez aurkitzen daben guztiei agertzera emon deieen.

**DAMU OTOITZA**

Jaungoikoa maitasuna da eta beti dago parkatzeko prest. Horregaitik, bere errukia eskatzen dogu bere Seme Jesukristoren bitartez:

- Aitak bialdu zaitu bere maitasuna agertzera emon deiguzun. *Erruki, Jauna.*
- Muga barik maite izan gaituzu. *Kristo, erruki.*
- Maitasunaren lekuko izatera bialtzen gaituzu. *Erruki, Jauna.*

**OHARRA IRAKURGAIEI**

Domeka honetako irakurgaien ardatza Jaungoikoaganako eta lagunurkoaganako maitasuna da. Lehenengo irakurgaian jasoten danez, Jaungoikoagaz bat eginda egoteko, adi egon behar dogu behartsuenei –bibliako hizkeran alargunek eta umezurtzek irudikatzen dabe egoera hori- laguntzeko. Mazedoniako kristinauek bihozbarritzea Paulori eskaini eutsen harrera beroan islatzen dala dinosku bigarren irakurgaiak. Ebanjelioan, zuzena da Jesusen irakaskuntza: Jaungoikoaganako eta lagunurkoaganako maitasuna estu lotuta dagoz. Jaungoikoaren Berbea entzuteak Jaungoikoaren maitasunaren misteriora zabaldu gaizala eta gure bihotza prestatu daiala gure maitasuna persona guztiengana heldu daiten.

**I. IRAKURGAIA:** Urteera 22, 20-26

**ERANTZUN SALMOA:** 17

**II. IRAKURGAIA:** 1 Tesalonikakoei, 1, 5c-10

**EBANJELIOA:** Mateo 22, 34-40

### **JAINKO HERRIAREN OTOITZA**

Jaungoikoak maite gaitu eta Berak daki ondoen zer behar dogun. Horregaitik, konfiantza osoaz, gure otoitza aurkeztuko deusagu.

- Eliza osoaren alde; eten barik egin daian otoitz eta lagundu deien sufritzen dagozan guztiei. Egin daigun otoitz.
- Aita Santuaren, gotzainen eta pastoral ekintzaile guztien alde; Jainko herriari jagokon misiolari egitekoa sustatu daien, misinora bialduak garala sentidu daigun. Egin daigun otoitz.
- Txirotasuna, indarkeria eta bidebakokeria jasaten dabezan herrialdeen alde; Ebanjelioak gizatasunez jantzi daizan eta euren egoera hobetu daiten. Egin daigun otoitz.
- Misiolarien alde; euren bizitzetan Jesusen arpegia erakutsi daien eta historiako gertaera guztietan Barri Ona itxaropenez eta poztasunez hots egin daien. Egin daigun otoitz.
- Eukaristia ospatzeko batu garanon alde; gure fedearen indar eta poztasunez Jaungoikoaren Erreinua gure gizartean jasoten lagundu daigun. Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko Aita gurea, gure otoitz eta bizitza zure aintzarako izan daitezala, herri guztiek zure Seme Jesukristoren arpegia ikusi daien. Errege bizi da-ta gizaldi eta gizaldietan.

### **OHARRA ESKAINTZARI**

Misinoen Munduko Jardunaldia ospatzen dogun honetan ogia eta ardaoa eskainiko doguz eukaristia ospatzeko. Honeekaz batera, geure burua be eskaintzen dogu, Jaungoikoaren maitasunaren benetako lekuko bihurtu gaitzean.

Domunderako batu dan dirua be aurkeztuko dogu. Diru honen bitartez, gure senidetasuna adierazo gura deusagu mundu osoari eta alkartasuna gure misiolariei.

### **AGURRA**

Domund eguneko Eukaristian parte hartzeak gure kristinau izatea misiolari ikuskeratik bizitzen laguntzen deusku. Batez be gaur, sentidu gaitzean misiolari eta bat egin daigun mundu osoan zehar Ebanjelioa bizi bihurtzen diharduen gizon eta emakume guztiekin. Gure misiolari lana ez daitela izan Domund egunean misiolariak gogoratzea bakarrik; bat egin daigun eurekin gure etenbako otoitzagaz eta laguntzagaz.

**XXX DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (A)**  
**DOMUND 2011**  
**“ASÍ OS ENVÍO YO”**

**MONICIÓN DE ENTRADA**

Nos reunimos en torno a la mesa del Señor resucitado. Él nos reúne junto a sí como hermanos y hermanas fijándose con especial amor en los pobres, los humildes y afligidos

“La liturgia es siempre una llamada «desde el mundo» y un nuevo envío «al mundo» para dar testimonio de lo que se ha experimentado: el poder salvífico de la Palabra de Dios y del Misterio pascual de Cristo”, dice el Papa en su *Mensaje* para la Jornada Mundial de las Misiones, el Domund, que hoy celebramos. Ahora que como comunidad cristiana nos hemos congregado para escuchar la Palabra de Dios y celebrar la eucaristía, es importante tomar conciencia de que la experiencia de la presencia de Cristo entre nosotros y nosotras y su acción salvífica es un tesoro que recibimos para nosotros y todos nuestros hermanos y hermanas en el mundo, y nos hace corresponsables de la misión.

El objetivo del Domund es precisamente renovar cada año nuestro compromiso con la misión universal de la Iglesia y con los misioneros y misioneras y nos unimos a ellos esparcidos por el mundo entero, para que con nuestra oración y nuestra ayuda fraterna puedan continuar su labor misionera y revelar el rostro de Jesús a todos los que le buscan con sincero corazón.

**ACTO PENITENCIAL**

Dios es amor y está siempre dispuesto al perdón; por eso invocamos su misericordia en nombre de su Hijo Jesucristo:

- Tú, que has sido enviado por el Padre para revelar su amor. *Señor, ten piedad.*
- Tú, que nos has amado hasta el extremo. *Cristo, ten piedad.*
- Tú, que nos envías para ser testigos del amor. *Señor, ten piedad.*

**MONICIÓN A LAS LECTURAS**

Las lecturas de la liturgia eucarística de este domingo centran nuestra atención en el amor a Dios y al prójimo. La primera lectura ya nos habla de la necesidad de estar atentos para ayudar a los más necesitados –representados en el lenguaje bíblico por las viudas y los huérfanos\_, como la principal manera de estar en comunión con Dios. La segunda resalta cómo la conversión de los cristianos de Macedonia se reflejó en la afectuosa acogida que tributaron a san Pablo. La enseñanza de Jesús en el Evangelio es directa: el amor a Dios y al prójimo van indisolublemente unidos. Que la escucha de la Palabra de Dios nos abra al misterio del amor de Dios y disponga nuestro corazón para que nuestro amor se extienda a todas las personas.

**I. LECTURA:** Éxodo 22, 20-26

## **SALMO RESPONSORIAL: 17**

**II. LECTURA:** 1Tesalonicenses 1, 5c-10

**EVANGELIO:** Mateo 22, 34-40

### **ORACIÓN DE LOS FIELES**

Dios nos ama y sabe lo que más nos conviene. Por eso, le presentamos nuestra oración confiada.

- Por la Iglesia universal, para que fomente su oración y acción por las necesidades de todas las personas que sufren. Oremos.
- Por el Papa, los obispos y todos los agentes pastorales, para que cuiden siempre la animación misionera de todo el pueblo de Dios, de modo que nos sintamos enviados a la misión. Oremos.
- Por los países empobrecidos y los que viven sumergidos en la violencia y la injusticia, para que el Evangelio sea buena noticia transformadora de esas realidades inhumanas y puedan avanzar en la mejora de su situación. Oremos.
- Por los misioneros y misioneras, para que reflejen en sus vidas el rostro de Jesús y anuncien la Buena Noticia con esperanza y alegría en medio de la historia y sus acontecimientos. Oremos.
- Por los que estamos reunidos celebrando la Eucaristía, para que con la fuerza y alegría de nuestra fe contribuyamos a instaurar el Reino de Dios en nuestra sociedad. Oremos.

Dios, Padre nuestro, que nuestra oración y nuestra vida sea alabanza de tu gloria para que todos los pueblos contemplan el rostro de tu Hijo, Jesucristo. Él que vive y reina por los siglos de los siglos.

### **MONICIÓN DE OFERTORIO**

En esta Jornada Mundial de las Misiones hacemos la ofrenda de los dones que van a servir para la celebración eucarística: el pan y el vino. En ellos nos ofrecemos también nosotros para ser transformados en auténticos testigos del amor de Dios.

También acercamos al altar la colecta que se ha hecho con motivo del Domund; es, en esta Jornada, un signo visible de nuestra fraternidad con todo el mundo y de nuestra solidaridad con los misioneros.

### **DESPEDIDA**

La participación en la eucaristía de jornada del Domund nos impulsa a vivir nuestro ser cristiano desde la perspectiva misionera. Sintámonos misioneros y misioneras hoy de manera especial, con todos los hombres y mujeres que están haciendo vida el Evangelio en todo el mundo. Que nuestra labor misionera no se reduzca a un mero recuerdo de los misioneros el día del Domund, sino que nos unamos a todos ellos con nuestra oración constante y nuestra ayuda permanente